# EUSKARA: IRAKURGAIA IV - TXIKIBARREN

## 4. maila

### 1.2.4. Txikibarren

| TESTUAREN DESKRIPZIOA | |
|---|---|
| **Testuaren izenburua:** | TXIKIBARREN |
| **Erabilera esparrua:** | PERTSONEN ARTEKO HARREMANAK |
| **Testuaren generoa:** | INKESTA ALDIZKARI DIGITALEAN |
| **Iturria:** | INTERNET (MOLDATUTA) |

**Hurrengo testua irakurri eta galderei erantzun.**

|  Biloba | ? |  Amona |
|---|---|---|
| Boing katea gustatzen zait, marrazki bizidunak ematen dituztelako. | **Telebistako zein saio gustatzen zaizu gehien?** | Telesailak ikustea gustatzen zait. |
| Ez dut izenburua gogoratzen. Geronimo Stiltonen liburuak gustatzen zaizkit. | **Irakurri duzun azken liburua?** | *"Lo que el viento se llevó"* irakurtzen ari naiz orain. Etxean ez dut astirik izaten, baina plazan gustura irakurtzen dut. |
| Titanic etxean atzean dagoen parkea. Han egoten gara lagunekin. | **Elgoibarko zein leku gustatzen zaizu gehien?** | Plaza. Elgoibarko lekurik politena iruditzen zait. |
| Bai, futbolean jokatzen dut bereziki. Athletic zalea naiz. | **Egiten duzu kirolik?** | Bai, *zumba* egiten dut. Apur bat galduta ibiltzen naiz, baina gustura. |
| Futbol zelaia berria egitea. Orain hasi dira obrak eta ondo geratuko da. | **Zer eskatuko zenioke Elgoibarko alkateari?** | Urazandirako igogailuren bat. Auzo horretan senideak ditut eta uste dut pixka bat lagata dagoela. |
| Elurra! Elur pilotak egin eta lagunekin jolasten oso ondo pasatzen dut. | **Elurra ala eguzkia nahiago duzu?** | Eguzkia. Niri elurra ez zait inoiz gustatu, umetan ere ez. |
| Norbaitek sustoa ematen didanean beldurtu egiten naiz. | **Zerk ematen dizu beldurra?** | Errepideak. Etxekoak bidaian joaten direnean kezkatuta egoten naiz. |
| Futboleko albisteren bat. Athletic-ek liga irabazi duela entzutea ondo egongo litzateke. | **Irratia piztean. Zein albiste entzun nahiko zenuke?** | Irratian ez ditut albisteak entzuten, musika entzutea gustatzen zait. Etxeko lanak egiteko beti jartzen dut musika. |

**Barren Elgoibarko aldizkari digitala** (Moldatuta)

## 01

**Zer nolako programak ikusten dituzte telebistan?**

A. Kirolak.

B. Txapelketak.

C. Denbora pasatzeko programak.

D. Albisteak edo informazioa ematen dituztenak.

## 02

**Kirola egiten al dute?**

A. Bai, biek.

B. Bai, futbola.

C. Ez; galduta dabiltza gai horretan.

D. Zaleak dira baina haiek ez dute egiten.

## 03

**Bilobak futbol zelai berria nahi du eta amonak igogailu bat. Nori eskatuko liokete?**

A. Familiari.

B. Auzoko elkarteari.

C. Elgoibarko alkateari.

D. Elgoibarko bizilagunei.

04

**Zelako informazioa ematen da testuan?**

A. Albisteak.

B. Iritzi pertsonalak.

C. Gai batzuei buruzko azalpenak.

D. Gai batzuei buruz alde edo aurkako arrazoiak.

05

**Erreparaiozu bi argazkien artean dagoen galdera ikurrari. Zer adierazten du?**

A. Zer erantzungo duten ez dakigula.

B. Oso erantzun harrigarriak eman dituztela.

C. Iraitzek eta Belenek ez dakitela zer erantzun.

D. Asmatu behar dugula nork egin duen galdetegia.

06

**Zure ustez, zertarako egin dizkiete galderak ume bati eta amona bati?**

A. Adineko jendea kirola egiten animatzeko.

B. Herritarren zaletasunen zerrenda osatzeko.

C. Adin desberdinetako pertsonen interesak azaltzeko.

D. Familiako kideen arteko desadostasunak agerian uzteko.

07

**Hauetariko zeintzuk gai jorratu dute galderak egitean? Klikatu 3 aukera egokiak.**

| GAIAK | |
|---|---|
| Interesak | |
| Musika | |
| Nahiak | |
| Familia | |
| Gustuak | |
| Ikasketak | |